

PRENTSA OHARRA 2019.07.17

Scotland Goes Basque
Edinburgh Festival Fringe + Edinburgh International Book Festival

Edinburgoko udako jaialdiak, euskal sorkuntzaren zabalkunderako gune

Abuztuan zehar, Fringen, munduko arte eszenikoen topagune handiengan, antzerkia eta dantza garaikide nahiz tradizionala erakutsiko dituzte **#ScotlandGoesBasque** programari esker bertaratutako euskal artista eta konpainiek.

Horiekin batera, abuztuaren 10etik 18ra, hainbat euskal idazlek euren lanak aurkeztu eta literaturaren inguruko hainbat solasaldi eta ekitalditan esku hartuko dute Edinburgh International Book Festival letren jaialdian.

#ScotlandGoesBasque programa baliatuta, Etxepare Euskal Institutuak euskal sortzaileen talentua Eskozian ezagutzera ematen dihardu aurten: neguan musika, udaberrian zinea eta udan, aldiz, arte eszenikoak eta literatura izango dituzte hizpide euskal artistek. **Edinburgh Festival Fringe** eta **Edinburgh International Book Festival** jaialdiak izango dira **#ScotlandGoesBasque** egitasmoaren mugarri berria. Abuztuan zehar, arte eszenikoen munduko topagunerik garrantzitsuena den Fringe erakusleihu aparta izango da euskal sortzaile eta interpreteentzat: Krego-Martín Danzak, Akira Yoshidak eta HQPCk elkarrekin aurkeztuko dituzte euren lanak Dance Basen izango den *Basque Showcase* delakoan; 2Theatre Assembly Roomsen jardungo da eta Edinburgoko kaleetan ikusgai izango dira Tio Teronen Semeak taldearen ikuskizuna eta, estreinakoz, *Atlantik 1050* euskal zein eskoziar dantza tradizionalen ikuskizuna. Eta Edinburgon bertan, abuztuaren 10etik 18ra, euskal literatura gonbidatu berezia izango da Book Festival jaialdian; bertan jardungo duten idazleak dira Iban Zaldúa, Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga, Eider Rodriguez eta Danele Sarriugarte; eta horiekin batera eskoziar hiriburuan izango dira Joseba Etxegoien eta Eñaut Elorrieta musikariak.

Euskal antzerkia eta dantza garaikide zein tradizionala Edinburgh Festival Fringen

1947. urtetik uda partean eskoziar hiriburuan egiten den [Edinburgh Festival Fringe](#) da munduko zuzeneko ikuskizunen jaialdi garrantzitsuenak; izan ere, horrela definitzen du bere burua jaialdiak: “sormen-askatasunerako munduko plataforma handiena”. Sortu zenetik, araei desafio egitea du erronka nagusia eta ordutik gaurdaino etengabe garatu da kultur eta arteen inguruko munduko ekitaldi handiena bihurtu arte. Urtero, abuztuko hiru astetan zehar, Eskoziako hiriburua askotariko arte adierazpenen bidezko ikuskizunen bilgune bihurtzen da: antzerkia, dantza, zirkoa, kabareta, haur eta familientzako ikuskizunak, musikalak, opera, poesia mintzatua, erakusketak... Fringe jaialdiaren aniztasunak ez du mugarik, eta nazioarte mailako izen handienak euren ibilbidearen hastapenetan dauden artistekin nahasten dira bertan, bertako zein mundu osoko ikus-entzuleen aurrean euren lana erakusteko; ikus-entzule horien artean izaten dira, halaber, herrialde askotako programatzaile zein kritikoak eta horregatik, artisten lanaren zabalkuntzarako plataforma ezin hobea da Fringe.

Aurten, 63 herrialdeetako lanak izango dira Fringen ikusgai, horietatik 260 europarrak; Edinburgoko bertako 744 muntaia ikus ahaliko dira eta ia mila Eskoziako beste tokietakoak. Gainera, eskoziar zein nazioarteko 1000 hedabideetako kazetari bertaratuko dira eta 1400 profesional izango dira Edinburgon, kontratatu, lagundu edo biran eraman ahaliko dituzten ikuskizunen bila. Horiekin guztiekin batera, aurtengoan, Etxepare Euskal Institutuak #ScotlandGoesBasque ekimenaren barnean finkatutako estrategiari esker, hainbat euskal artista zein konpainiek nazioarteko topagune paregabe horretan izateko aukera izango dute.

Basque Showcase: Krego-Martín Danza, Akira Yoshida eta Proyecto Colectivo HQPC Dance Base, Eskoziako Dantza Zentro Nazionalean

Etxepare Euskal Institutuak luzatutako deialdiari erantzunda, euren lanak Eskozian erakusteko aurkeztu zituzten artista eta konpainia ugariaren artean, Dance Base-eko (Eskoziako Dantza Zentro Nazionalak) zuzendaritzak berak aukeratutako taldeak izango dira abuztuaren 8tik 11ra Fringe jaialdiaren egoitza nagusienetakoa den Dance Base-en, hain zuzen. Talde eta artista horiek dira Krego-Martín Danza, Akira Yoshida eta Proyecto Colectivo HQPC. Hirurek euren lanak elkarrekin, bata bestearen ondoren aurkeztu ahal izateko moldatu dituzte eta *Basque Showcase* delako erakustaldi bakarrean erakutsiko dituzte (*Non*) *Comfort Zone*, *Home* eta *Habr  que ponerse cachas* euren muntaien laginak.

Krego-Martín Danza konpainiaren sortzaile Bego Krego eta María Martínek Edinburgora eramango duten **(Non) Comfort Zone** ikuskizunak publikoaren eta dantzarien artean sortu ohi den “laugarren horma” haustea du helburu, “dantzaren humanizazioa” islatu nahi dute. Oso garrantzikotzat jotzen dute orain Fringen aurkeztea, publiko ororen aurrean, baina batez ere jaialdiaren inguruan urtero biltzen diren profesionalen aurrean (programatzaileak, ekoizleak, artistak, ...). María Martínen hitzetan, “esperientzia honen garrantzia haratago doa, nazioarteko beste hainbat tokitan jarduteko bideak ireki eta gure lanak mugak gainditzen jarrai dezan ahalbidetuko baitu. Edonola ere, publikoak egiten dugunaren partaide sentitzea izango litzateke, ezbairik gabe, lorpenik handiena”.

Maylis Arrabit koreografoak eta Xabier Madina eta Ebi Soria dantzariak **Proyecto Colectivo HQPC** euren egitasmoaren baitan sortutako **Habrá que ponerse cachas** ikuskizun inklusiboa aurkeztuko dute Fringen. Ikuskizunak bi pertsonen arteko harremana islatzen du, testurik gabe, dantza eta antzerkia uztartuz, eta izaera atsegin eta umoretsua du. Joan zen ekainean, Dance Base eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko lankidetzari esker, Janice Parker eskoziar koreografoarekin Edinburgon erakutsiko duten *Habrá que ponerse cachasen* moldaketa prestatzeko aukera izan zuten. Ebi Soriak esana da: “Bereziki nabarmentzekoa da muntaia inklusibo bat maila goreneko jaialdi batek hautatua izatea; horixe baita gure helburua, publikoari zer egiten dugun ulertzen lagunduko dion etiketa batekin iritsi arren, handik inolako etiketarik gabe irtetea, alegia”.

Basque Showcase emanaldia osatuko duen pieza **Akira Yoshida** dantzariaren **Home** da. Akirak sortu eta interpretatutako bakarkako muntaia da; interpreteak atzera begirakoa egiten du eta gizabanako gisa bere funtsa zein den bilatzen du; noraezean etxerako bidean doanaren istorioa kontatzen du, erosotasunera doanarena, edo behar bada ez. Akira Yoshida, ama donostiarra eta aita japoniarra dituen dantzari iruindarra *breakdance* edo *Bboing* dantzatik abiatuta iritsi da dantza garaikidea lantzerantz; Salzburg Experimental Academy of Dance delakoan dantza garaikidea ikasten ari zela sortu zuen *Home*. Dantzariak esan du: “Atzerrian lau urte eman eta gero, poza ematen dit Euskal Herriko lanen artean egoteak. Orain atzerrian dihardut lanean, baina sentipen ugari dauzkat nire herriarekiko: nire lagunak, nire *Bboying* taldea, nire familia osoa... hemen nire oinarriak ikasi ditut eta energia berri bat ekarri nahiko nuke eskertze moduan”.

***Atlantik 1050*, euskal zein eskoziar dantza tradizionalen ikuskizunaren estreinaldia**

Etxepare Euskal Institutuaren eta Dance Base-en arteko elkarlanaren beste emaitzetako bat da abuztuaren 9an Edinburgoko kaleetan estreinatuko den **Atlantik 1050**, euskal zein eskoziar dantza tradizionalak uztartzen dituen kaleko ikuskizuna. Institutuak berak, Errenteriako Atlantikaldia jaialdiak eta Dance Base-ek, Eskoziako Dantza Zentro Nazionalak sustatutako ikuskizun horrek

itsasoa du bi kulturen arteko lokailu eta ikerkuntzaren, uztarketaren eta elkarlanaren emaitza izango da. *Atlantik 1050*en zuzendari artistikoa da Jen Wren eskoziar koreografo eta dantzaria; musika zuzendaria Amy Geddes musikari eskoziarra da eta Alain Maya da euskal dantza eta musika tradizionalen aholkularia. Ikuskizunean eskoziar zein euskal dantzariak ariko dira.

Egun sorkuntza prozesuan dago *Atlantik 1050*: ekaina hasieran Jen Wren eta Amy Geddes Euskadin izan ziren, Alain Mayaren eskutik bertako tradizioa eta kultura ezagutu eta ikuskizuna eraikitzen hasteko. Orain, uztailaren 24tik 27ra, Alain Maya Edinburgora joango da proiektua osotzeko; bertan eskoziar dantza zein musika eta folkloreak xehetasunak ezagutu eta Jen, Amy eta bertako dantzariekin ariko da jardunean.

Ikuskizunak joan-etorriko bidaiara egingo du: abuztuaren 9an Edinburgon estreinatu ostean, irailaren 22an Errenteriako Atlantikaldia jaialdira etorriko da.

Tio Teronen Semeak taldearen *FreshCool* ere Edinburgoko kaleetan

Abuztuaren 7tik 11ra, beste euskal talde bat izango da Edinburgoko kaleetan: Tio Teronen Semeek *FreshCool* aurkeztuko dute Royal Mile Mercat Stage eszenatokian. *FreshCool* ikuskizunak orotariko egoera barregarri eta absurdoak biltzen ditu, esaterako, Raphaelen kantu bat aurreko moduan dantzatua. Taldeko kide Aritz Salamancaren iritziz, “benetako luxua eta ohorea izango da guretzat festa erraldoi horren parte aktibo izatea. Euskal kultura sustatzen dugun taldeontzat irudika genezakeen erakuslehorik hoberena da. Beraz, gehien gustatzen zaigun modura aurkeztuko dugu *FreshCool* Edinburgoko kaleetan zehar, umoretsu, giro ederrean eta euskaraz; gure hizkuntzak batez ere Fringe bezalako testuinguruak merezi dituelako”.

2Theatre antzerki taldeak *Interbeing* estreinatuko du

Fringe jaialdian izango den euskal ordezkari bat osatuz, Svetlana Biba eta Txema Perez aktoreek zuzentzen duten eta Bilbon egoitza duen [2Theatre](#) nazioarteko antzerki taldeak *Interbeing: Stories From a Current War* eszenaratuko du, abuztuaren 1etik 25era, Assembly Roomseko Ball Room aretoan. Egun Ukrainian bizi den gatazka islatzen duen obraren izaeraren inguruan, Txema Perezek dio: “Gure ikuskizunetan antzerki bisuala egiten dugu, maskarak, irudiak, mugimendua eta abar erabilia; hitzak badu bere lekua (euskarak), baina guztiok ulertzeko moduko muntaia da, munduko edozein lekutan. Muntaia honen bidez ikusleei luzatu nahi diegun galdera zera da: zein da norbanakoaren rola gatazka batean? Posible al da ikusle bakarrik izatea? Edo ikusten ditugun gauzen parte gara, nahi ala ez?”. Irudi bidezko rapsodia gisa definitua, ikuskizun oso bizia da eta lan

fisikoak garrantzi handia du horretan: euskal zein ukrainar antzezleek dantza, antzezpena eta akrobaziak baliatzen dituzte.

EUSKAL ARTISTAK EDINBURGH FESTIVAL FRINGE JAIALDIAN: EGITARAU

Abuztuak 1 > 25. 15:30etan

2Theatre: *Interbeing: Stories From a Current War*

Assembly Rooms (Ball Room)

Abuztuak 7 > 10

Tio Teronen Semeak: *FreshCool*

Royal Mile Mercat Stage

Abuztuak 8 > 11. 12:15etan

Basque Showcase

Krego-Martín Danza: *(Non) Comfort Zone*

Akira Yoshida: *Home*

HQPC Collective Project: *Habr  que ponerse cachas*

Dance Base (Studio 1)

Abuztuak 9

Atlantik 1050

Edinburgoko kaleetan barrena

Euskal literatura, gonbidatu berezia aurtengo Edinburgh International Book Festival jaialdian

1983. urtean sortu zen [Edinburgh International Book Festival](#) jaialdia. Denbora laburrean letren arloko munduko jaialdirik handi eta dinamikoenetakoa bilakatu da berau: abiatu zenean idazleekin 30 topaketa izan ziren; egun, aldiz, 800 ekitalditik gora izaten dira, adin orori zuzenduak, 200.000 pertsona biltzen dituztenak hiriko erdiguneko Charlotte Square Gardens lorategietan eta horien inguruan, George Street kalean. Jaialdiaren ezaugarri nagusienetakoa da urtero berean hartzen dituen goi mailako mahai-inguruak eta eztabaida-zikloak. Urtero, mundu osoko idazleak bertaratzen dira euren irakurleekin egun pil-pilean dauden gaien ildotik ideiak, pentsamoldeak, ezagutza eta iritziak partekatzeko eta baita ilustratzaile, musikari, aktore edo komedianteekin elkarlanean literaturaren inguruko emanaldiak aurkezteko.

“Istorio berriak behar ditugu” izenburu harturik, aurtengo edizioa, abuztuaren 10etik 26ra luzatuko da. Etengabeen eraldatzen ari den mundua hobeto ulertzeko jantziago sentitzeko

baliabideak eman eta jendartean loturak sortzea du helburu jaialdiak, eta horretarako klima aldaketa, teknologia edo janari ekoizpena bezalako gaiak landuko dira, horiei guztiei aurre egiteko irudimenez betetako ideiak eta irtenbide berriak beharko direla sinesturik. Egun horietan askotariko diziplinak zein adierazpideak modu anitzetan uztartuko dira: politika hilketekin, filosofia umorearekin, bidaiak errezitaldiekin, musika ekonomiarekin, komikiak historiarekin eta abar.

Abuztuaren 10etik 18ra, Etxepare Euskal Institutuaren ekimenez, **euskal literatura gonbidatu berezia izango da**. Bertan izango dira Iban Zaldua, Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga, Eider Rodriguez eta Danele Sarriugarte idazleak eta Joseba Etxegoien eta Eñaut Elorrieta musikariak.

Iban Zalduak Txekhov vs. Shakespeare ekimena aurkeztuko du James Robertson eskoziarrarekin batera. Sorburua Donostia 2016 Kultur Hiriburutzan duen egitasmo horri jarraipena emanez, Europak egun bizi dituen erronka eta gatazken inguruan dituzten iritzi eta ideiak partekatzeke idatzi dituzten gutunen inguruan jardungo dute biek. Guztira hamabi eskutitz idatzi dituzte, bakoitzak sei, eta Iban Zalduak honela laburtu du orain arteko esperientzia: “Joan-etorri honen bitartez, idazle bi ezagutu eta elkarrizketan sartzen direnetan gertatu ohi den iritzi trukeaz gain (norberaren gustuak, fobiak, eraginak, erreferentziak etab. azaleratzen dituenak), sakon aritu gara euskal eta eskoziar kultur egoeraz eta, batik bat, gure sorkuntza-tresna nagusi diren bi hizkuntzen egoeraz, eskoziera eta euskara, eta haien literaturez. Eta desberdintasun handiak daudela egiaztatu arren, antzekotasunak eta elkarguneak hasieran uste baino handiagoak direla ohartu gara, orobat. Edonola ere, elkarren kulturen ezagutzan sakontzeko aukera eman digu ariketa honek, ikuspuntu kritiko batetik eta, esatera ausartuko nintzateke, topikoetatik ihes eginez. Identitatearen, herrialde bien egoera politikoaren eta nazionalismoen kontuekin lotuta, bestalde, Europaren errealitatea eta egungo egoera izan da, halabeharrez, hizpide izan dugun beste gai nagusietako bat, eta horri dagokionez *Brexit* delakoaren itzala eta Mediterraneo aldeko errefuxiatuen tragedia izan dira dialogo honetan azpimarratu daitezkeen heldulekuak”.

Harkaitz Canok bere *Twist* nobelaren inguruan hitz egingo du Jumoke Verissimo poeta nigeriarrarekin *The Bonds That Break Us (hausten gaituzten loturak)* izenburudun solasaldian (abuztuak 10). Canok errua, adiskidetasuna eta traizioa lantzen dituen *Twist* bere eleberria aurkeztuko du eta Jumoke Verissimok, berriz, bere lehenbiziko eleberria, *A Small Silence (Isilune txiki bat)*: Prof aktibistak, kartzelatik irten ondoren, iluntasunean bizitzea erabaki du, bisitari batek bere bakardadea apurtzen duen arte. Harkaitz Cano *Wine and Words* zikloan ere ariko da, abuztuaren 11n, **Danele Sarriugarte** itzultzailearekin eta **Joseba Etxegoien** musikariak lagunduta.

Miren Agur Meabe Zinzi Clemmons estatubatuar idazlearekin ariko da solasaldian. Amerikarrak *What we lose (Galtzen dugun hori)* bere eleberrian eta Miren Agur Meabek *Kristalezko begi bat* liburuan, biek galera baten ondorioak eta bizitzaren zentzuaren bilaketa jorratzen dituzte euren lanetan eta gai horren inguruan jardungo dute, *Living, loving and loss (bizitzea, maitatzea eta galera)* izenburupean, abuztuaren 11n.

Uxue Alberdi *Indigenous Voices* zikloan izango da, Ciara MacLavery poetarekin eta Rachel Newton kantari eta harpistarekin batera. Aukeratutako objektuak eta hitzak erabiliz, Uxue Alberdik eta Islay eskoziar uharteko Ciara MacLavery poetak euren bizipenak partekatuko dituzte musika, bertsoa eta eztabaida uztartuko dituen emanaldian; idazleek Rachel Newton kantari eta harpistarekin lan egin dute mugak gaindituko dituen ikuskizun batean euskal zein eskoziar kulturen arteko antzekotasunen zein ezberdintasunetan barrena joateko.

Bezperan, Uxue Alberdik *Unbound With Edinburgh Gin* zikloan esku hartuko du, **Danele Sarriugarte** itzultzailearekin eta **Eñaut Elorrieta** musikariarekin batera. Elkarrekin, *Scotland Goes Bertsolaritza!* emanaldia aurkeztuko dute, bertsolaritza Book Festivalen ezagutzera emateko. Zuzeneko bertsolaritza eta musika saioa Etxepare Euskal Institutuak Mintzola Ahozko Lantegiarekin eta Laboral Kutxarekin elkarlanean burututako *What is Bertsolaritza?* ikus-entzunezkoarekin osatuko da.

Bernardo Atxaga ere *Indigenous Voices* zikloan izango da, abuztuaren 17an, Margaret Jull Costa itzultzailearekin batera *Sin City Through Basque Eyes (Pekatu hiria, euskal begietan)* izenburudun solasaldian. Horretan euskal idazle gailenak *Nevadako egunak* bere eleberriaz hausnartuko du, besteak beste, Fernando Pessoa, José Saramago edo Carmen Martín Gaiteren idazlanekin batera, Atxagaren beraren lanak ere ingelesera itzultzen dituen Margaret Jull Costarekin.

Eider Rodriguezek itzulpenaren inguruko maisu eskola emango du Margaret Jull Costarekin batera, abuztuaren 18an. *Hone your creative writing (Hobetu zure sormenezko idazketa)* izenburu hartuta, bi idazleek itzulpenaren artearen inguruan dituzten ezagutzak partekatuko dituzte, hainbat genero hizpide hartuta: istorio laburrak, eleberriak, poesia edo ez-fikzioa. Margaret Jull Costak espainiar zein portugaldar egile gailenen lanak itzuli ditu ingelesera eta Eider Rodriguezek, aldiz, frantsesezko eta gaztelaniazko lanak euskaratu ditu. Egun horretan bertan, goizez *Ten at Ten* zikloaren baitako irakurketa saioan ere esku hartuko du Eider Rodriguezek.

EUSKAL IDAZLEAK EDINBURGH INTERNATIONAL BOOK FESTIVAL JAIALDIAN:
EGITARAUA

Abuztuak 10

12:30etan: *Txekhov vs. Shakespeare*. Iban Zaldúa eta James Robertson. Garden Theatre

15:30etan: Harkaitz Cano eta Jumoke Verissimo. Writer's Retreat

Abuztuak 11

12:15etan: Miren Agur Meabe eta Zinzi Clemmons. Baillie Gifford Corner Theatre

18:00etan: Harkaitz Cano - *Wine and Words*. The Spiegel tent

(Danele Sarriugarte, itzultzailea; Joseba Etxegoien, musikaria)

21:00etan: *Unbound: Scotland Goes Bertsolaritza!* The Spiegel tent

“*What is Bertsolaritza?*” ikus-entzunezkoa

Uxue Alberdi, bertsolaria

(Danele Sarriugarte, itzultzailea)

Eñaut Elorrieta, kantaria

Abuztuak 12

18:00etan: *Throwing Voices*. Uxue Alberdi, Ciara MacLavery, Rachel Newton.

The Spiegel tent

Abuztuak 17

19:00etan: Bernardo Atxaga eta Margaret Jull Costa. Baillie Gifford Corner Theatre

Abuztuak 18

10:00etan Eider Rodriguez - *Ten at Ten*. Writer's Retreat

14:00etan *Translation Workshop* – Eider Rodriguez eta Margaret Jull Costa.

Kimpton Charlotte Square Hotel



Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus